Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko otsailaren 24a, osteguna — 37 — Jueves, a 24 de febrero de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Bidania-Goiatzeko Izarre Txiki baserriaren Plan Bereziari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa.*

1. *Aurrekariak.*

Bidania-Goiatzeko Udala Izarre Txiki baserriaren plan berezia izapidetzen ari da. Partzela hori lurzoru urbanizaezinean dago, eta nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera osagarri bat garatu nahi du, nekazaritza-turismoko jarduera gisa kalifikatua, landa-ostatura bideratua lau ostatu turistiko txiki ezarrita, eta dibulgazio-jarduera ere barnean hartuta. Bidania-Goiatzeko egungo HAPOaren Hirigintza-araubideak eskatzen du horretarako dagokion Plan Berezia izapidetzea.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa Ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, diotenari jarraikiz, Izarre Txiki baserriaren plan bereziak ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua behar du, aipatutako 21/2013 Legearen 6.2.c artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baitira.

2021eko abuztuaren 30ean, Bidania-Goiatzeko Udalak osorik formalizatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari zuzendutako eskaera, Izarre Txiki baserriaren plan bereziaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa izapidetzen hasteari buruzkoa. Horretarako, Udalak eskaerarekin batera bidali ditu plan bereziaren zirriborroari dagokion dokumentazioa eta planaren azterketa akustikoa.

Eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko izapidea –Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30.1 artikuluari jarraikiz–, Udalak bidalitako dokumentazioa eta egindako kontsulten erantzunak aztertu ondoren, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak, 2021eko azaroaren 2an, Bidania-Goiatzeko Udalari jakinarazi zion ezen, judizio-elementu nahikoak izateko eta ingurumen-prozedura ebatzi ahal izateko, Udalak ingurumen-organoari aurkeztu behar ziola nahikoa dokumentazio plan berezia eta haren jarduerak legez bateragarriak direla egiaztatzeko, argitze aldera Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzatik eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusitik jasotako erantzunetan horri buruz aipatzen ziren gogoetak.

Eskaera horri erantzunez, Bidania-Goiatzeko Udalak GFAko Sustapen Ekonomikoko, Turismoko eta Landa Garapeneko Departamentuaren eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren txostenak bidali zituen 2021eko azaroaren 23an. Txosten horietan aldeko eta positibotzat jotzen da nekazaritza-turismoko erabilera ezartzeko proposamena, partzelaren nekazaritza-ustiategiari lotutako jarduera osagarri gisa, plan bereziak sustatutako proposamenaren arabera.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Informe ambiental estratégico del Plan Especial del caserío Izarre Txiki en Bidania-Goiatz.*

1. *Antecedentes.*

El Ayuntamiento de Bidania-Goiatz se encuentra tramitando el plan especial del Caserío Izarre Txiki, parcela que se localiza en suelo no urbanizable y en la que se pretende desarrollar una actividad complementaria de la específicamente agropecuaria, calificada como agroturística, orientada al alojamiento rural por medio de la implantación de cuatro pequeños alojamientos turísticos, e integrando asimismo la actividad divulgativa. El régimen urbanístico del actual PGOU de Bidania-Goiatz requiere que a tal efecto se tramite el correspondiente Plan Especial.

De acuerdo con lo establecido en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental y en el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, el plan especial del Caserío Izarre Txiki se encuentran sometido al procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada al darse las circunstancias establecidas en el artículo 6.2.c la mencionada Ley 21/2013.

El 30 de agosto de 2021, el Ayuntamiento de Bidania-Goiatz ha formalizado de forma completa su solicitud a la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa referente al inicio de la tramitación de la evaluación ambiental estratégica del plan especial del Caserío Izarre Txiki. A estos efectos, junto con la solicitud, el Ayuntamiento ha remitido la documentación correspondiente al borrador del plan especial y el documento ambiental.

Una vez efectuado el trámite de consultas a las administraciones públicas afectadas y a las personas interesadas especificado en el art. 30.1 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental y analizadas, tanto la documentación remitida por el Ayuntamiento como las respuestas a las consultas efectuadas, la Dirección General de Medio Ambiente comunicó el 2 de noviembre de 2021 al Ayuntamiento de Bidania-Goiatz que, para contar con elementos de juicio suficiente y poder resolver el procedimiento ambiental, el Ayuntamiento debía de aportar al Órgano Ambiental la documentación que permitiese acreditar que el plan especial y sus actuaciones son legalmente compatibles con lo dispuesto en la normativa de ordenación territorial y urbanismo, de cara a esclarecer las consideraciones que al respecto se mencionaban en las respuestas recibidas de la Dirección de Planificación Territorial y Agenda Urbana del Gobierno Vasco y de la Dirección General de Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En respuesta a dicha solicitud, el Ayuntamiento de Bidania-Goiatz ha remitido el 23 de noviembre de 2021 informes del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Desarrollo Rural de la DFG y de la Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco, en los que se determina como favorable y positiva la propuesta de implantación del uso de agroturismo como actividad complementaria vinculada a la explotación agraria de la parcela según la propuesta promovida por el plan especial.

EK\CV GAO-I-2022-00782

Beraz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozeduraren esparruan, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari dagokio ingurumen-txosten estrategikoa egitea. Txosten horretan, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen V. eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorriz, eta egindako kontsulten emaitza ikusita, zehaztuko da plan bereziak eragin adierazgarririk izan dezakeen ingurumenean –eta, beraz, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura egin behar zaion–, edo eragin adierazgarririk ez duen –ingurumen-ebaluazio estrategikok ezartzen dituen baldintzetan–.

*2. Plan Bereziaren helburuak eta proposatutako antolaketa.*

Izarre Txiki baserriaren plan bereziak 25.598 m²-ko azalera duen partzela bat antolatzen du. Partzela hori, gaur egun, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretarako erabiltzen da, eta Bidania-Goiatzeko herrigunearen iparraldean dago, eta GI-2634 errepidetik (Tolosa-Azpeitia) sartzen da bertara.

Gaur egun, partzelak hainbat eraikin ditu. Ipar-mendebaldean jarduerari lotutako etxebizitza barne hartzen duen baserria dago, 300 m²(t)-ko eraikigarritasuna duena, eta mendebaldean nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenerako 3 eraikin daude, guztira 1.200 m²(t)-ko eraikigarritasuna dutenak. Baserriak ur-hornidura, energia elektrikoa eta telekomunikazioak ditu, baita hobi septiko bidezko saneamendu-sistema bat ere.

Negozioa dibertsifikatze aldera, partzelan jarduera osagarri bat garatzeko aukera planteatzen du jabetzak: nekazaritza-turismoa. Horretarako, partzelan integratutako lau ostatu turistiko txiki proposatzen dituzte. Bakoitzak 54 m²-ko azalera du oinplanoan, beheko solairuko eta teilatupeko profila eta 75 m²(t)-ko azalera eraikia (gehieneko eraikigarritasuna: 300 m²(t)), bai eta aparkaleku txiki bat ere. Partzelako nekazaritza- eta abeltzaintza-lanetako jarduera didaktikoak eta dibulgatzekoak baserrian eta antolatutako gainerako eremuan egingo dira.

Alternatibei dagokienez, plan bereziaren dokumentazioak eta ingurumen-dokumentu estrategikoak esku hartzeko hiru aukera zehaztu eta aztertu dituzte. 0 alternatiba eremuaren egungo egoerari eustean datza, inolako aldaketarik gertatu gabe. Alternatiba horrek aukera ematen du gaur egungo jarduera garatzeko, baina ez du aukerarik ematen nekazaritza eta abeltzaintzako jardueraren epe luzerako jarraitutasuna eta erresilientzia emateko, enplegua sortzeko, landa-ingurunean biztanleria finkatzeko eta landa-ingurunea zaintzeko proposamenaren helburuari heltzeko; eta, beraz, baztertu egiten da. 1. alternatiba eraikin konbentzional berri bat antolatzean datza, lau bizitokitarako edukiera izango duena (eraikin bakarra, 40 metro luze eta 8 metro sakon izango dituena). 2. alternatibak lau ostatu-unitate independente modu iruzkinduan antolatzea planteatzen du. Estrategikoki partzelan kokatutako lau eraikin arin-txikiren bidez planteatuz gero, ez da errotik aldatzen lehendik zegoen landa-kokalekuaren irudia, eta horregatik aukeratu da azkenean irtenbide hori.

*3. Kontsulta, gaiak eragiten dien administrazioei, pertsona interesdunei eta jendeari oro har.*

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, Plan Bereziaren eta haren eraginpeko lurralde-eremuaren ezaugarrietan oinarrituta, Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honek interesduntzat identifikatu ditu eta kontsulta egin die honako administrazio eta erakunde hauei, zeinei organo sustatzaileak prestatutako dokumentazioa bidali baitzien:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.

Por tanto, en el marco del procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada, corresponde a la Dirección General de Medio Ambiente emitir el informe ambiental estratégico, en el que, de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley Ley 21/2013, de 9 de diciembre y a la vista del resultado de las consultas realizadas, se determina si el plan especial puede producir efectos significativos sobre el medio ambiente, y, por tanto, debe someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria, o no los tiene en los términos que establezca el informe ambiental estratégico.

*2. Objetivos y ordenación propuesta en el plan especial.*

El plan especial del Caserío Izarre Txiki ordena una parcela con una superficie de 25.598 m² que se destina actualmente a actividades agropecuarias vinculadas a la explotación «Amalur», y que se sitúa al norte del núcleo urbano de Bidania-Goiatz y a la que se accede desde la carretera GI-2634 (Tolosa-Azpeitia).

Actualmente la parcela cuenta con varios edificios. Al noroeste se localiza el caserío que incorpora la vivienda vinculada a la actividad y que cuenta con una edificabilidad de 300 m²(t), y en la zona oeste se localizan 3 edificios dedicados a la explotación agraria y ganadera y que tienen una edificabilidad total de 1.200 m²(t). El caserío cuenta con abastecimiento de agua, de energía eléctrica, y de telecomunicaciones, así como con un sistema de saneamiento mediante fosa séptica.

Con el objetivo de diversificar el negocio, la propiedad plantea la posibilidad de desarrollar una actividad complementaria en la parcela: el agroturismo. Para ello proponen cuatro pequeños alojamientos turísticos integrados en la parcela y que cuentan cada uno con una superficie en planta de 54 m², un perfil de planta baja y bajo cubierta y una superficie edificada de 75 m²(t) (edificabilidad máxima total de 300 m²(t)), así como un pequeño aparcamiento. Las actividades didácticas y de divulgación de las labores agropecuarias de la parcela se desarrollarán en el caserío existente y en el resto del ámbito ordenado.

Por lo que se refiere a las alternativas, tanto la documentación del plan especial como el documento ambiental estratégico, han determinado y analizado tres opciones de intervención. La alternativa 0 consiste en el mantenimiento de la situación actual del ámbito, sin que se produzca transformación alguna. Esta alternativa permite el actual desarrollo de la actividad, pero no posibilita abordar el objetivo de la propuesta de dar la continuidad y resiliencia a largo plazo de la actividad agropecuaria, la generación de empleo, la fijación de población en el medio rural y el cuidado de este, por lo que se descarta. La alternativa 1 consiste en ordenar un nuevo edificio convencional con capacidad para cuatro alojamientos (un solo edificio de cerca de 40 metros de longitud con 8 metros de fondo). La alternativa 2, plantea la ordenación comentada de cuatro unidades independientes de alojamiento. Al plantearse mediante 4 edificios livianos de reducido tamaño estratégicamente ubicados en la parcela permiten no alterar de forma sustancial la imagen del asentamiento rural preexistente, por lo que es la solución por la que se opta finalmente.

*3. Consulta a administraciones afectadas, personas interesadas y público en general.*

De acuerdo con lo dispuesto en artículo 30 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, basándose en las características del plan especial y del ámbito territorial afectado por el mismo, esta Dirección General de Medio Ambiente ha identificado como interesadas y ha consultado a las siguientes administraciones y organizaciones, a las que remitió la documentación elaborada por el órgano promotor:

— Dirección General de Cultura de la DFG.

— Dirección General de Agricultura y Equilibrio Territorial de la DFG.

— Dirección General de Montes y Medio Natural de la DFG.

EK\CV GAO-I-2022-00782

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Trantsizioko Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

— IHOBE.

— Uraren Euskal Agentzia (URA).

— Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.

— Kantaurikoko Ur Konfederazioa.

— Energiaren Euskal Erakundea (EEE).

— Tolosaldeko Hondakinen Mankomunitatea.

— Tolosaldea Garatzen S.A.

— Tolomendi.

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Eguzki Talde Ekologista.

— Ekologistak Martxan.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Itsas Enara Ornitologia elkartea.

Halaber, dokumentazioa eskuragarri egon da Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren Interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus), jendeak, oro har, eta interesdunek egoki iritzitako ingurumen-arloko ekarpenak egin ahal izateko.

Epea amaituta, eta txosten hau igorri zen egunera arte, erantzun eta ekarpen hauek jaso dira:

— Uraren Euskal Agentziak (URA) adierazi du eskaera Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari helarazi zaiola, agentzia horrek uren arloan dituen eskumen espezifikoen arabera egiten duen txostena gorabehera. Bigarren txosten batean, URAk adierazten du inguruan ez dagoela ibilgurik, eta Hernio erreka dela hurbilen dagoena, 250 metro ingurura. Hornidurari dagokionez, uste du ez dela berme-defizitaren arazorik aurreikusten baliabide hidrikoen eskuragarritasunari dagokionez, eta saneamenduari dagokionez, aipatu du, hasiera batean, partzelan egun dagoen hobiak ez duela isurtzeko baimenik, eta egoera hori lehe-

— Dirección General de Gestión y Planificación de la DFG.

— Dirección General de Movilidad y Transporte Público de la DFG.

— Dirección General de Ordenación del Territorio de la DFG.

— Dirección General de Obras Hidráulicas de la DFG.

— Dirección General de Carreteras de la DFG.

— Dirección de Planificación Territorial y Agenda Urbana del Gobierno Vasco.

— Dirección de Atención de Emergencias y Meteorológica del Gobierno Vasco.

— Dirección de Infraestructuras de Transporte del Gobierno Vasco.

— Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco.

— Dirección de Medio Natural y Cambio climático del Gobierno Vasco.

— Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

— Dirección de Industria y Transición Energética del Gobierno Vasco.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

— Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

— IHOBE.

— Agencia Vasca del Agua URA.

— Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

— Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

— Ente Vasco de Energía (EVE).

— Mancomunidad de Residuos de Tolosaldea.

— Tolosaldea Garatzen S.A.

— Tolomendi.

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia elkartea.

— Grupo ecologista Eguzki.

— Ekologistak Martxan.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Itsas Enara Ornitologia elkartea.

Así mismo, la documentación ha estado accesible en el portal de Internet de la Dirección General de Medio Ambiente, www.gipuzkoaingurumena.eus, para que el público en general y cualquier interesado pudiera realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Finalizado el plazo y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas:

— La Agencia Vasca del Agua URA señala que, con independencia del informe que emita dicha agencia de acuerdo con sus competencias específicas en materia de aguas, la solicitud ha sido trasladada a la Confederación Hidrográfica del Cantábrico. En un segundo informe URA indica que no existe cauce alguno en el entorno, siendo la regata Hernio la más cercana, a unos 250 metros. Respecto al abastecimiento, entiende que no se prevén problemas de déficit de garantía en relación con la disponibilidad de recursos hídricos, y en relación con el saneamiento, menciona que en principio, la fosa actualmente existente en la parcela ca-

neratu egin beharko dela; proiektatutako hobirako, berriz, dagokion isurketa-baimena eskatu beharko da. Ondorioztatzen du, lurpeko jabari publiko hidraulikoa babesteko eta lurzatiaren saneamendua behar bezala ebazteko, etorkizuneko saneamendu-sistemarekiko konexioa aurreikusi beharko dela, egun dagoen hobiaren egoera erregularizatzen bada, lurrera isurtzeko nahitaezko baimena lortuz, eta proiektatutako hobirako dagokion isurketa-baimena eskatzen bada.

— Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak jakinarazi du justifikatu egin beharko dela ezinezkoa dela jardueraren saneamendua saneamendu-sistema publikoan sartzea, banakako arazketa-aukeren aurrean lehentasuna duen aukera baita, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren Araudian ezarritakoaren arabera. Saneamendu-sistema publikoarekiko loturaren bideraezintasuna egiaztatzen bada, adierazten du hondakin-uren arazketarako konponbidea, ahal dela, hobi septiko estanko baten bidez egituratuko dela, eta, horri dagokionez, dagokion isurketa-baimena eskatu beharko dela. Baimen hori dagoen hobirako ere eskatu ahal izango da. Horretarako, tratatu beharreko emarien estimazio bat aurkeztu beharko da eta proposatutako konponbidea zehaztu beharko da, gutxienez aurretiazko azterketa mailan. Azkenik, aipatu du hondakin-urak Adunako HUAn amaitzen den saneamendu-sare publikoan sartzeko aukera dagoen unean konexio hori egin beharko dela.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak jakinarazi du Bidania-Goiatz udalerria V-VI intentsitate-eremuan dagoela, arrisku sismikorako Larrialdi Planaren arabera, eta, beraz, udalerri horrek ez duela horri buruzko larrialdi-planik egin behar. Hala ere, kontuan hartu beharko da 997/2002 Errege Dekretuak onartutako seismoen aurkako eraikuntzaren araua. Salgai arriskutsuen garraioari lotutako arriskuei dagokienez, GI-2634 errepideak, azpieremuaren mugakide denak, kartografiatutako oso arrisku txikia du, baina bi gauza hartu behar dira kontuan. Alde batetik, errepidearen alde bakoitzean 600 metroko distantzia paraleloa egon behar da; hori izango da, istripu bat gertatuz gero, egoera txarretan esku hartzeko zona. Era berean, adierazten du partzela sute-arrisku kartografiatu baxuko eta, neurri txikiagoan, ertaineko eremu batean dagoela, eta eguneroko prezipitazio-balio isomanikoak 250 mm-tik 275 mm-ra bitartekoak direla, 500 urteko errepikatze-denborarekin; beraz, kontuan hartu behar dira drainatzeak diseinatzerakoan. Azkenik, adierazten du gaua igarotzea eta 10 ohe edo gehiago dituzten establezimendu edo aterpeetako egoitza-jarduera publikoak dagokion autobabes-plana izan behar duela, arriskuak eta horiei aurrea hartzeko behar diren neurriak identifikatu eta ebaluatzeko, eta administrazio publiko eskudunari jakinarazi behar zaiola, baimena eskuratzeko.

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak adierazi du plan bereziak ez diela eragiten bere eskumeneko azpiegiturei, eta, beraz, egokia dela aldeko txostena egitea.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du Plan Bereziaren eremuan ez dela ukituko Kultura Ondarea.

— GFAko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi du Bidania-Goiatzeko HAPOaren araudian ezarritakoaren arabera lurzoru urbanizaezinean onargarriak direla landa-ingurunean kokatu behar diren eta sektoreko legeriak edo lurralde-plangintzak interes publikokotzat jotzen dituen interes publiko eta sozialeko erabilerak. Ildo horretan, Zuzendaritzak adierazi du ez dakiela ba ote dagoen legeria edo plangintza horretan inolako aipamenik proposamenaren ezaugarriak dituen jarduera bat interes publikokotzat jotzeko, eta, jarduera horrek nahitaez landa-ingurunean kokatu behar den erabilera bat dakarren ala ez; orobat esan du proposatutako bizitokiak ez direla hiri-lurzoruak baztertzen dituen modalitate bat, eta, beraz, indarrean dagoen araudia-

rece de autorización de vertido, situación que deberá revertirse, mientras que para la fosa proyectada deberá solicitarse la pertinente autorización de vertido. Concluye que en aras de una protección del Dominio Público Hidráulico subterráneo, y para resolver adecuadamente el saneamiento de la parcela, deberá preverse la conexión al futuro sistema de saneamiento, toda vez que se regularice la situación de la fosa actualmente existente mediante la obtención de la preceptiva autorización de vertido al terreno, así como que se solicite la pertinente autorización de vertido para la fosa proyectada.

— La Confederación Hidrográfica del Cantábrico informa que deberá justificarse la imposibilidad de incorporar el saneamiento de la actuación al sistema público de saneamiento, opción preferente frente a alternativas de depuración individual según establece en la Normativa Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental. Para el caso que quede acreditada la inviabilidad de conexión con el sistema público de saneamiento, señala que la solución a la depuración de las aguas residuales se articulará preferiblemente mediante fosa séptica estanca, respecto a la que deberá solicitarse la correspondiente autorización de vertido, que será exigible asimismo para la fosa existente. Para ello será preciso aportar una estimación de los caudales a tratar y concretar la solución propuesta a nivel, al menos, de estudio previo. Finalmente, menciona que en el momento en que exista la posibilidad de incorporar las aguas residuales a la red de saneamiento público que culmina en la EDAR de Aduna, deberá ejecutarse dicha conexión.

— La Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco informa que el municipio de Bidania-Goiatz se sitúa en la zona de intensidad V-VI según el Plan de Emergencias ante riesgo sísmico, con lo cual el municipio está exento de realizar un plan de emergencia al respecto. No obstante, se deberá tener en cuenta la norma de construcción sismorresistente aprobada por el R.D. 997/2002. Respecto a los riesgos asociados al transporte de mercancías peligrosas, indica que la carretera GI-2634, colindante con el subámbito, presenta al respecto un riesgo cartografiado muy bajo, pero que se debe de considerar una línea paralela a las vías de 600 m a cada lado que sería la zona a intervenir en caso de accidente en condiciones adversas. Asimismo, señala que la parcela se sitúa en una zona que cuenta con un riesgo cartografiado de incendio bajo, y en menor medida medio, y que los valores isomáximos de precipitación diaria se sitúan entre 250 mm y 275 mm, con un periodo de recurrencia de 500 años, por lo que deben ser tenidos en cuenta a la hora de diseñar los drenajes. Finalmente indica que la actividad residencial pública en establecimientos o albergues con pernoctación y un número de camas igual o superior a 10, debe de contar con un plan de autoprotección correspondiente que identifique y evalúe los riesgos y las medidas necesarias para prevenirlos, que debe de comunicarse a la administración pública competente para autorizarlo.

— La Dirección de Infraestructuras de Transporte del Gobierno Vasco señala que el plan especial no afecta a infraestructuras que estén bajo su competencia, por lo que resulta procedente informarlo positivamente.

— La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco indica que en el ámbito del Plan especial no se aprecian afecciones en el Patrimonio Cultural.

— La Dirección General de Ordenación del Territorio de la DFG informa que según lo determinado en la normativa del PGOU de Bidania-Goiatz son admisibles en suelo no urbanizable los usos de interés público y social que precisen ubicarse en el medio rural y que sean declarados de interés público por la legislación sectorial o por el planeamiento territorial. En este sentido, la Dirección indica que desconoce la existencia de mención alguna en esa legislación o planeamiento que declare de interés público una actuación de las características de la propuesta y que, respecto a si la misma implica un uso que debe necesariamente ubicarse en el medio rural, que los alojamientos planteados no son una modalidad que sea rechazada por el suelo urbano, por lo que

EK\CV GAO-I-2022-00782

ren arabera, ez dela onargarria lurzoru urbanizaezin gehiago okupatzea haiek garatzeko, jada ezarrita dauden eraikuntzei kalterik egin gabe. Horregatik guztiagatik, jakinarazi du ez dela egokitzat jotzen plan berezian planteatutako proposamena.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak adierazi du, Hirigintza-araudian ezarritakoaren arabera, soilik lurzoru urbanizaezinean egin ahal izango direla berariaz eta modu esklusiboan landa-ingurunean kokatu beharreko zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak ezartzera bideratutako jarduketak, betiere Hirigintza-plangintzarekin bat etorriz eta aplikatzekoa den sektore-legeriak edo lurralde-plangintzak interes publikokotzat jotzen baditu; gainera, kasu zehatz bakoitzerako, interes publikokoak deklaratuak izan beharko dute, dagokion foru aldundiaren ebazpen bidez. Era berean, aipatzen du nekazaritza-turismoari buruzko araudian xedatutakoaren arabera (13/2016 Legea eta 199/2013 Dekretua) plan bereziaren bidez sustatu nahi diren jarduerak eta ostatuak ez datozela bat 199/2013 Dekretuaren 2. eta 3. artikuluetan jasotako modalitate eta definizioekin (nekazaritza-turismoa, landa-etxea, landa-hotela, landa-apartamentua eta landa-turismoko aterpetxea).

Aurrekoarekin bat etorriz, Lurralde Plangintzaren Zuzendaritzak adierazten du Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan, Tolosako (Tolosaldea) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialean, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean eta udal-plangintzan xedatutakoaren arabera, lurzoru urbanizaezinean eraikin berriak eraikitzea soilik onartuko dela baldin eta honako baldintza hauetako bat betetzen bada: a) Eraikina zuzenean lotuta egotea kokatzen den lursailaren lehen mailako baliabideen ustiaketarekin, edo b) aldez aurretik erabilera gisa deklaratuta dauden eta kokatuta egon behar duten landaizaerako eraikinak izatea. Ildo horretan, Zuzendaritzak ondorioztatzen du turismo-ostatura bideratutako lau eraikin berriak ez daudela zuzenean lotuta kokatuta dauden landa-eremuko lehen mailako baliabideen ustiapenarekin, eta ez direla, beren helburu eta ezaugarriengatik, nahitaez landa-ingurunean kokatu behar diren eraikinak, eta turismoaren arloko legeria sektorialak soilik aurreikusten duela nekazaritza-turismoko jardueraren garapena, aldez aurretik nekazaritza-ustiategian integratutako baserrietan ostatu-zerbitzua ematea eskatzen duena, landa-jarduera horretan eraikiko liratekeelako, eta ez landa ingurunean eraikitako eraikin berrietan; eta ahalbidetu nahi den jarduera garatzeko beharrezkoa izango litzatekeela jarduera aldez aurretik interes publikokotzat jotzea Foru Aldundiaren ebazpen bidez.

Jasotako erantzun eta ekarpenen artetik, plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren edukietan eta helburuetan eragina duten alderdiak aztertu egin dira eta kontuan hartu dira ingurumen txosten estrategiko honen atal desberdinetan.

Jasotako erantzunak Bidania-Goiatzeko Udalari bidaliko zaizkio, ingurumen-txosten estrategikoarekin batera, eta ondoren erantzunik jasoz gero, erantzun hori ere ahalik eta lasterren bidaliko da, plan berezia idaztean eta izapidetzean kontuan har dadin.

*4. Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen V. eranskinean jasotzen diren irizpideen araberako azterketa.*

Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 13ko 21/2013 Legearen 31. artikuluak adierazten duenez, ingurumen organoak ebatziko du ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua behar duten planek ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duten ala ez, lege horren V. eranskinean zehaztutako irizpideak aplikatuta. Irizpide horiek planaren ezaugarrietan, eraginetan eta eragina jasan lezakeen eremuan oinarritzen dira.

Planaren ezaugarriei dagokienez, ingurumen-txosten estrategiko honen 2. atalean deskribatzen den bezala, plan bereziaren helburua da landa-turismoko ostaturako 4 eraikin txiki ezartzea,

a tenor de la normativa vigente, no es admisible la ocupación de más suelo no urbanizable para su desarrollo, sin perjuicio de su implantación en edificaciones ya existentes. Por todo lo anterior informa que no se considera procedente la propuesta planteada en el plan especial.

— La Dirección de Planificación Territorial y Agenda Urbana del Gobierno Vasco señala que de acuerdo con lo establecido en la normativa urbanística, solo podrán llevarse a cabo en suelo no urbanizable las actuaciones dirigidas específicamente y con carácter exclusivo al establecimiento de dotaciones, equipamientos y actividades que precisen ubicarse en el medio rural, de conformidad con el planeamiento urbanístico y que sean declarados de interés público por la legislación sectorial aplicable o el planeamiento territorial; debiendo además, para cada caso concreto, ser declaradas de interés público mediante resolución de la Diputación Foral correspondiente. Asimismo, menciona que según lo dispuesto en la normativa referente a Agroturismo (Ley 13/2016 y Decreto 199/2013) la actividad y los alojamientos que se pretenden impulsar a través del plan especial no parecen adecuarse a las modalidades y definiciones incluidas en los artículos 2 y 3 del Decreto 199/2013 (Agroturismo, Casa Rural, Hotel Rural, Apartamento Rural y Albergue Turístico Rural).

De acuerdo con lo anterior, la Dirección de Planificación Territorial señala que según lo dispuesto al respecto en las DOT, el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Tolosa (Tolosaldea), el Plan Territorial Sectorial Agroforestal y el planeamiento municipal, la construcción de nuevas edificaciones en Suelo No Urbanizable es exclusivamente admisible si se cumple una de las siguientes condiciones: a) Que la edificación esté directamente vinculada a la explotación de los recursos primarios del terreno donde se asienta, o b) Que se trate de edificios que, por su naturaleza, deban obligatoriamente emplazarse en el medio rural y que previamente, sean declarados de utilidad pública o interés social. En este sentido, la Dirección concluye que las cuatro nuevas edificaciones destinadas a alojamiento turístico no se encuentran directamente vinculadas a la explotación de los recursos primarios del ámbito rural donde se emplazan, que no constituyen tampoco edificios que, por su finalidad y características, deban obligatoriamente emplazarse en el medio rural, que la legislación sectorial en materia de turismo únicamente contempla el desarrollo de la actividad de «agroturismo» mediante el servicio de alojamiento en los propios caseríos integrados en la explotación agraria y no en nuevas edificaciones construidas en el medio rural, y que el desarrollo de la actividad que se pretende posibilitar requeriría que la misma fuese previamente declarada de interés público por resolución de la Diputación Foral.

Aquellos aspectos señalados por las respuestas y aportaciones recibidas que inciden en los contenidos y objetivos propios del procedimiento de evaluación ambiental estratégica del plan especial se han analizado y tenido en cuenta en los distintos apartados de este informe ambiental estratégico.

Las respuestas recibidas serán remitidas al Ayuntamiento de Bidania-Goiatz, junto con el informe ambiental estratégico, y en caso de recibirse alguna respuesta posterior, ésta también será remitida en el plazo más breve posible, a fin de que sea tenida en cuenta en la redacción y tramitación del plan especial.

*4. Análisis en base a los criterios recogidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de evaluación ambiental.*

Según señala el artículo 31 de la Ley 21/2013 de 13 de diciembre, de evaluación ambiental, el órgano ambiental resolverá el sometimiento o no de los planes sujetos a evaluación ambiental estratégica simplificada, a un procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria, aplicando los criterios determinados en el anexo V de dicha Ley, criterios que se basan en las características del plan, de los efectos y del área probablemente afectada.

Por lo que se refiere a las características del plan, tal y como se describe en el apartado 2 de este informe ambiental estratégico, el plan especial tiene por objeto permitir la implantación de 4

EK\CV GAO-I-2022-00782

nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera dibertsifikatzeko eta finkatzeko eta epe ertainean bermatzeko, landa-ingurunea ez uzteko, eta ingurune horretan biztanleria finkatzea eta ingurunea bera zaintzea sustatzeko.

Bidania-Goiatzeko HAPOaren arabera, partzela «D22 Trantsizioko Landa Paisaia» tipologiako eremu bati dagokio. Izarre Txiki baserria dago bertan, eta bertan bizi dira jarduera ustiatzen dutenak. Orobat daude bertan 3 eraikin, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenetara emanak. Eremu-tipologia horretan, HAPOak nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak ahalbidetzen ditu, eta onargarritzat jotzen ditu lurzoru urbanizaezinean baimendu eta ezar daitezkeen landakoak ez diren beste erabilera batzuk (hirugarren sektoreko erabilerak, ekipamenduak, kanpamentu turistikoak, etab.), arlo horretan aplikatzekoak diren xedapenetan ezarritako baldintzetan –HAPOa eta indarrean dagoen Hirigintza-legeria barne–. HAPOarem Hirigintza Arau Orokorretako 102. artikuluak, baimena behar duten landakoak ez diren beste erabilera eta eraikin batzuk ezartzeari buruzkoak, adierazten du horien artean sartzen direla hirugarren sektoreko erabilerak, komunitate-ekipamendukoak eta horiekin pareka daitekeen beste edozein, titulartasun publikokoak nahiz pribatukoak, eta, nolanahi ere, erabilerak baimendu eta ezartzeko, aldez aurretik justifikatu egin beharko dela landa-ingurunean ezarri beharra, Horrez gain, aldez aurretik interes publikoa aitortu beharko zaio (aplikatzekoa den legeria sektorialean eta/edo lurralde-plangintzan horri buruz ezarritakoarekin bat etorriz), hots, udalerriko landa-ingurunean ezartzea beharrezkoa edo komenigarria dela, haren antolamenduari eta garapenari egiten dion ekarpena kontuan hartuta. Horrela, salbuespen gisa, eta betiere proposatutako helburua lehendik dauden eraikin horietan ezartzerik ez badago, erabilera horietara bideratutako eraikin berriak eraikitzeko baimena eman ahal izango da, 102. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

Alde horretatik, ingurumen-organo honek Bidania-Goiatzeko Udalari dokumentazio osagarria eskatu zion, hartara egiaztatzeko plan berezia eta haren jarduerak legez bateragarriak direla lurralde-antolamenduari eta Hirigintzari buruzko araudian xedatutakoarekin. Orobat eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzatik eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusitik jasotako erantzunetan horri buruz aipatzen ziren gogoetak argitzeko. Zentzu horretan, Bidania-Goiatzeko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Sustapen Ekonomikoko, Turismoko eta Landa Garapeneko Departamenturen eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren txosten bana bidali ditu.

Txosten horietan argudiatzen denez, proposatutako nekazaritza-turismoko erabilera ezartzea nekazaritzako ustiategiaren jarduera osagarria da, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideei (Aplikatzeko arauen II. eranskineko 2.d.4 atala) Nekazaritza eta Basogintzaren LAPari (28.3) eta Bidania-Goiatzeko HAPOari (12. art.) jarraikiz. Orobat esaten da ezen, 199/2013 Dekretuaren 4. artikuluaren arabera, nekazaritza-turismo bati dagokion ostatu-zerbitzua dependentzia batek edo dependentzia multzo batek osatzen dutela, etxebizitzarako eta nekazaritza-ustiategi baten beharrak asetzeko; eta, bestetik, baserria dela (2015eko ekainaren 25eko 5/2015 Legean ezarritako definizioaren arabera) nekazaritza-ustiategi bat, besteak beste honako hauek osatzen dutena: landetxe batek eta baserriari atxikitako zenbait elementuk. Horiek unitate tekniko ekonomiko bat osatzen dute, zeinak jarduera horretarako behar den guztiarekin zerikusia duten eraikuntza, instalazioa edo azpiegitura integratzen baititu, daudenak edo ez, jarduera osagarriak garatzekoak. Horrela, aldeko eta positibotzat jotzen dute nekazaritza-turismoko erabilera ezartzeko proposamena, lurzatiaren nekazaritza-ustiapenari lotutako jarduera osagarri gisa, plan bereziak sustatutako proposamenaren arabera.

Beraz, aurkeztutako dokumentazioa ikusita, plan bereziaren ezaugarriei dagokienez, ez dirudi horrek Bidania-Goiatzeko Hiri-

pequeños edificios destinados a alojamiento turístico rural de cara a diversificar la actividad agropecuaria existente y consolidarla y asegurarla a medio plazo, evitando el abandono del medio rural, promoviendo la fijación de población en dicho medio y el cuidado de este.

